

KOSTUAK - KOSTUEN EGITURA MOTAK

Jakina den bezala, kostu batzuk edukiko ditugu, kostu finkoak eta kostu aldakorrek hain zuzen ere. Hala ere, gure kostuak minimizatzen saiatuko gara. Kostu finkoak dagokionez, orubearen kostua ordaindu beharko dugu, izan ere, lokal batean lan egingo dugu eta hasieran behintzat alokairuko lokal bat izango da. Ez da oso handia izango, eta herriaren kanpoaldean kokatuta egongo da, horrela merkeagoa izango da eta gutxiago ordaindu beharko dugu. Lokal horrek 3 gela izango ditu: lehenengo gela bilografoak egiteko izango da, bigarrenagoa administrazioa egongo da eta ekipo informatikoak ez ditugu erosi beharko gure etxean ditugunak eramango baititugu, hurrengo gela almazena izango da eta bertan produktu bukatuak egongo dira. Gainera, txoko bat izango du argitasun handiko paret zuri batekin argazkiak ateratzeko eta bideoak egiteko. Honez gain, komun bat ere izango du lokalak. Boligrafoak egiteko makineria ordaindu beharko dugu baina jada hitz egin dugu guk behar dugun makina egiten duen enpresarekin eta deskontu handi bat egingo digula adierazi digu.

Kostu aldakorrei dagokionez, lehengaien kostua ordaindu beharko dugu. Hasteko, boligrafoak egiteko lehengaien prezioa salmenta-bolumenaren arabera izango da. Hau da, beti ez dugu lehengaien prezio berdina ordaindu beharko, izan ere, batzuetan boligrafo gutxiago eta beste batzuetan gehiago ekoiztuko ditugulako bezeroen arabera eta, horregatik guk lehengai gehiago edo gutxiago erosi beharko ditugu. Honez gain, lokaleko elektrizitatea ere ordaindu beharko dugu eta hori erabiltzen dugun arabera izango da.